

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

331/2018 Foru Agindua, abenduaren 7koa, zeinaren bidez onartzen baita jolas kirola irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez garatzeko 2019rako dirulaguntzen deialdia

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak asmoa du 2019an zehar diruz laguntzeko jolas kiroleko jarduerak, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Konderriko irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez garatuak.

Horretarako, nahitaezkoa da jolas kirol jarduerak bete beharreko araudia zehaztea, sailak dirulaguntza egokiak bidera ditzan.

Azterturik Kirol Zerbitzuaren buruak emandako txostena.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehena. Onartzea Arabako lurralde historikoko edo Trebiñuko konderriko irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez jolas kirola garatzeko 2015eko dirulaguntza deialdia. Deialdia hogeita hamar mila euroz (30.000,00 euro) hornituta egongo da gehienez, eta hauek arautuko dute: 55/2015 Foru Dekretua, urriaren 6koa, Diputatuen Kontseiluarena, zeina urriaren 21eko ALHAOn argitaratu baitzen, 2015eko urriaren 21ekoan, eta zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen arloan lehia bidez ematen diren dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien oinarri arau orokorrak, eta, bestetik, Foru Agindu honen eranskinean sartzen diren berariazko oinarriak.

Bigarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2019ko Gastu Aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.06.77.00.481.00.08 ("Kirola, irabazteko xederik gabeko erakundeak") partida.

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du dagokion ebazpena, Kirol Zerbitzuaren proposamena eginik; lau hilabeteko epea du ebazpena emateko, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela uler dezakete.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Deialdiaren behin betiko ebazpena baldintza etengarri honen mende egongo da: Arabako Foru Aldundiaren 2019rako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 7a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Foru aginduaren eranskina

Dirulaguntzetarako deialdia, Arabako lurralde historikoan eta Trebiñuko konderrian 2019ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean gauzatzen diren jolasezko kirol jardueretarako

Lehenengoa. Helburua eta xedea

Laguntzea, aurrekontu baliabideen mugen barruan, jolasezkoak diren zenbait kirol jarduera gauzatzeko gastuetako batzuk finantzatzen, 2019ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean gauzatzen badira (biak barne) Arabako lurralde historikoan eta Trebiñuko konderrian, 55/2015 Foru Dekretuak xedatutakoaren barruan (urriaren 6koa, zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak).

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

“Dirulaguntzen zenbateko osoa ez da izango, inolaz ere, 30.000 eurotik gorakoa; diru zenbatekoa, nolahi ere, Arabako Lurralde Historikoaren 2019ko Gastuen Aurrekontuko “Kirola, irabazteko xederik gabeko erakundeak” izeneko 70.1.06.77.00.481.00.08 partidari egotziko zaio.”

Deialdiaren behin betiko ebazpena baldintza etengarri honen mende egongo da: Arabako Foru Aldundiaren 2019rako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak

Irabazteko xederik gabeko zernahi erakunde edo elkarte izango da erakunde onuradun, baldin eta sozietatearen helbidea Arabako lurralde historikoan edo Trebiñuko konderrian badu.

Ez dira erakunde onuradun izango kirol federazioak edo osorik edo neurri batean horien elkarteak direnak.

Ez dira onuradun izango Kirol Zerbitzuaren bestelako dirulaguntza lerro batzuetan aparteko tratamendu eta bereziagoa duten erakundeak, hala nola, eskola kiroleko jarduerak, kirol egokituko jarduerak eta horrelako beste batzuk.

Ez dira onuradun izango Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren hirugarren oinarri arauak xedatutako baztertze egoeretan dauden entitateak (Foru dekretu horren bidez, onspena eman zitzaizen Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileei).

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

a) Honako programa hau lagundu daiteke diruz:

– Sasoiari jartzeko jarduerak eta gimnasioko jarduerak, hala nola, aerobica, pilatesa, pump-a, gap-a, spinning-a, zumba, yoga, tai-chia eta antzeko beste batzuk, gimnasio/pilotaleru/kiroldegi/erabilera askotarako aretoetan egiten direnak eta helduei (16 urtetik gorakoak) eta “hirugarren adinekoei” zuzenduak.

– Aire zabalean egiten diren sasoiak jartzeko jarduerak, etengabeko lasterketaren, “running”-aren, martxa nordikoaren (nordic walking) eta antzeko beste batzuen bidez eginak eta helduei (16 urtetik gorakoak) eta “hirugarren adinekoei” zuzenduak.

– Herri ibilaldiak, mendi-ibiliak, mendiko eta antzeko jarduerak, gehienez ere egun bat irauten dutenak.

– Bizikleta martxak (BTT, mendiko bizikleta eta antzekoak), gehienez ere egun bat irauten dutenak.

Salbu eta adierazten denean jarduerak egun bakar bat iraungo duela, beste guztiak iraunaldi luzeko jardueratzat hartzen dira. Halakotzat jotzen dira gutxienez hiru hilabetean egiten direnak (jarraian ela ez) eta, horietako bakoitzean, gutxienez astean bi aldiz egiten direnak, hori guztia, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean.

Beraz, kanpoan geratuko dira aurretik adierazitakoak ez diren kirol jardueren programak.

“b) Orokorrean, diruz lagundu ezin daitekeen jardueratzat hartuko dira aurreko atalean adierazi ez direnak; zehazkiago, kanpoan egongo dira:”

“Lehiaketa” jarduera mota guztiak.

– “Edozein motatako “hastapen”, “campus”, “teknifikazio” eta/edo “hobekuntza tekniko” jarduerak, baita ere entrenamendurako eta/edo lehiaketarako berariazko trebakuntzarekin zerikusia duten guztiak.

– Aretoko dantzekin edo euskal dantzekin loturiko jarduerak eta antzeko ezaugarriak dituztenak, baita horietatik zein beste kirol jarduera mota batzuetatik datozenak eratorriak ere, hala nola, “koreografia”, “estetika” eta antzeko ezaugarriak dituztenak.

– Aikido, boxeoa, judo, karate, borroka edo taekwondo tankerako “borroka” jarduera guztiak, “defentsa pertsonaleko” jarduerak eta antzeko ezaugarriak dituztenak.

– Motorrarekin zerikusia duten jarduera guztiak, hala nola, automobilismoa, motonautika, motoziklismoa, aeronautika eta antzeko ezaugarriak dituztenak.

– Irristaketarekin loturiko jarduera guztiak.

– Edozein motatako armekin zerikusia duten jarduera guztiak, direla su armak, direla ezpatak, sableak, ganibetak, uztaiak, baleztak nahiz antzeko armak.

– Nola edo hala animaliek parte hartzen duten jarduera guztiak, hala nola ehiza, tiroa, arku tiroa, mushing (txakur narra), animaliek parte hartzen duten herri kirolak eta antzeko ezaugarriak dituztenak.

– “... eskolak”, “... bataioa” edo “guztientzako ... jarduera” deituriko jarduerak, hala nola, “tenis eskolak”, “urpeko bataioa”, “guztientzako bela”, eta antzeko ezaugarriak dituztenak.

b) Dirulaguntzaren xede den jarduerak irekia izan behar du, hau da, entitate eskatzailearen kide ez diren pertsonak ere parte hartzeko aukera izan behar dute.

c) Entitate bakoitzak ezingo du egin eskaera bat besterik.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidaliko zaizkio eskaerak, I. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuta. Horiek oso-osorik bete behar dira eta honako jarraibideen arabera:

1.1. 1. orria: Erakunde eskatzailearen datuak, posta bidezko jakinarazpenak egiteko helbidea eta legezko ordezkariaren datuak. Azken pertsona hori bat etorri behar da “Eskaera aurkezten duen pertsonaren adierazpen erantzukizunpeko adierazpena” izeneko 2. orrian aipatzen denarekin.

1.2. 2. orria: Eskaera aurkezten duen pertsonaren erantzukizunpeko adierazpena; zeinaren bidez egiaztatzen baita aipatzen den pertsonak erakunde eskatzailearen baimena bera ordezkatzeko. Horrekin batera eskaera sinatzen duen ordezkari horren NANaren fotokopia aurkeztuko da.

1.3. 3. orria: erakunde eskatzaileari alta eman behar izanez gero edo hirugarrenen kontabilitate fitxategian dauden datuak eguneratu behar izanez gero, honako datuak aurkeztuko dira:

– Bankuko kontuaren zenbakia, IBAN kodearekin. Agiri horrek banku erakundearen zigorua izan behar du, bankuko kontu zenbakia erakunde eskatzailearena dela egiaztatzeko.

– Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia (IFZ). Erakunde eskatzaileari alta eman behar izanez gero baino ez da aurkeztuko.

1.4. 4. orria: Datuak erakunde eskatzailearen lan eta zerga egoerari buruz, egin beharreko jarduera motari buruz, jarduera egiteko instalazioari buruz, parte hartzaile kopuruari buruz (denak 16 urtetik gorakoak) eta jarduera egiteko egunei eta orduei buruz.

1.5. 5. orria: gastu konputagarrien aurrekontua, diru sarreraren aurrekontua eta erakunde eskatzailearen ordezkariaren sinadura.

1.6. 6. orria: Oharrak eta eskaera aurkezten denean hartzen diren konpromisoak.

2. Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik baldin badu, egiaztatu beharko du bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundearen egiaztagiria aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik. Zerga betebeharrei dagokienez, erakunde onuradunek Araban badute sozietatearen egoitza, nahikoa izango da egunean dituztela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

3. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betetz, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituen araudiek kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaileari, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez dagoen zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin den.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskabidean; haien artean hautatzeko irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira beren-beregi memoria batean.”

Eskaerak adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

3. Eskaera bat baino ez da egingo erakunde eskatzaile bakoitzeko.

Seigarrena. Aurkezteko epea

Hogei egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

Eskaeran aurkeztutako benetako datuak, 2019ko urtarrilaren 1a eta 2019ko ekainaren 30a bitartekoak, kontuan hartuta, kalkulatu da aldi horri dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Dirulaguntzak banatzeko puntuazioen sistema erabiliko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa zatitu egingo da puntuazio baremoa aplikatuta eskatzaile guztiek lortutako puntu guztien artean, eta horrek emango digu puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, berriz zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta ez badu gainditzen jardueraren gastua.

2. Honako muga hauek ezarriko dira:

– Gastu konputagarrien muga.

– Jardueraren guztirako gastuak ken jardueraren guztirako diru sarrerak, horren emaitzaren muga.

– Eskatzaileak adierazitako muga, "eskatutako zenbatekoa" laukitxoan datorrena, aplikatuko da.

– Edonola ere, 2.000,00 euroko muga orokorra ezarriko da.

3. Oinarri hauetan adierazten diren dirulaguntzen onuradunek ezin izango dituzte azpikontratatu diruz lagundutako jarduerak, hain zuzen ere urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, dirulaguntzei buruzkoak, 27. artikuluan jasotzen dituenak.

4. 2019ari buruz emandako datuen arabera aplikatuko dira dirulaguntzak, eta ezin daitezke inoiz ere argudio izan beste urte batzuetan eskatu ahal izateko.

5. Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

6. Proposatutako dirulaguntzen batuketa aurrekontu esleipen erabilgarria baino gehiago bada, proportzionalki banatuko da.

7. Honako kontzeptu hauek gastu konputagarritzat hartuko dira:

a) Alegia: kirol monitoreak, laguntzaileak, irrati-loturak, bidegurutzeen kontrola, ibilbidea markatzea, eta jarduera egiteko beharrezkoak diren gainerako langileak. (Barnean daude haiek herri batetik bestera egiten dituzten joan-etorriak).

Fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira; beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

b) Mediku, anbulantzia, salbamendu eta antzeko gastuak, egiten diren jardueretarako beren-beregi kontratatutakoak.

Fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira; beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

8. Honako kontzeptu hauek ez dira gastu konputagarritzat hartuko:

a) Arbitro, epaile, kronometratzaile, laguntzaile eta horien guztien antzeko gainerakoek eragindako gastuak.

b) Jarduerarako aseguru orokorra eta/edo berariazkoa.

c) Kirolari, epaile, zuzendaritzako kide eta gainerako parte hartzaileen mantenu (gosariak, bazkariak, afariak, luntxak, anoak, protokolo gonbidapenak eta antzekoak) eta ostatu gastuak.

- d) Materiala garraiatzea eta muntatzea.
- e) Kanona, trafiko tasak, abalak eta horien antzeko gastuak.
- f) Dirulaguntza zein jardueretarako eskatu den, jarduera horiek gauzatuko diren instalazioak alokatzeko gastuak.
- g) Norberaren erabilerarako materiala, hala nola, kamisetak, txandalak, zapatilak, botak, bainujantziak, hortz babesak, puntak, kaskoak eta horrelako gainerako elementuak.
- h) Parte hartzaileentzako opariak (elastikoak, kirol jertseak, dominak, oroigarriak eta horien antzeko gastuak, bai eta haien gainean inprimatzea edo grabatzea ere).
- i) Ordezkaritza gastuak, protokolo jarduerak eta horien antzeko gastuak.
- j) Kartelak (diseinatzea, inprimatzea, banatzea, jartzea, ematea eta horien antzeko gastuak), baita komunikabideetan egindako mota guztietako publizitatea ere.
- k) Kultura edo kirol erakustaldiak.
- l) Kirolariak kontratatzea (kaxetak, ordainak, kontratuak eta horien antzeko gastuak).
- m) Mota guztietako materiala erostea edota alokatzea.
- n) Ikuztegi gastuak.
- o) Partaideentzako dietak edo sariak, dirutan edo gauzatan, eta antzekoak.
- p) Kirol instalazioak alokatu, garbitu, zaindu, konpondu edo antzekoengatiko ordainak eta sariak.
- q) Parte hartzaileen eta ikusleen era bateko eta besteko joan-etorriak, nahiz garraio bide partikularretan nahiz garraio bide kolektibo publikoetan egiten dituztenak. Kanpoan geratzen dira zazpigarren oinarriko 7-a) apartatuan adierazitakoak.
- r) Erakunde antolatzaileetako langileen dietak eta ordainsariak, salbu eta eskatutako dirulaguntzaren gai den jarduera berariaz garatzeko kontratatu zehatzei darizkienak.
- s) Megafonia alokatzea eta lokuzioa.
- t) Bulego eta informatika materiala, bai eta telefono, fax, internet eta horien antzeko gastuak ere.
- u) Mota guztietako garaikurrak.
- v) Antolaketa eta kontrol zerbitzuak kontratatzeak eragindako gastuak.
- w) Diruz lagun daitekeen kirol jarduerari egotz ezin dakizkiokeen beste gastu batzuk.
9. Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inoiz ere ez dira sartuko lagundu daitezkeen gastuetan.
10. Puntuak honako puntuazio baremo honen arabera banatuko dira:

| GASTU KONPUTAGARRIEN AURREKONTUA | PUNTUAK |
|--------------------------------------|---------|
| 0,01 eta 1.000,00 euro bitartean | 1 |
| 1.000,01 eta 2.000,00 euro bitartean | 2 |
| 2.000,01 eta 3.000,00 euro bitartean | 3 |
| 3.000,01 eta 4.000,00 euro bitartean | 4 |
| 4.000,01 eta 5.000,00 euro bitartean | 5 |
| 5.000,01 eta 6.000,00 euro bitartean | 6 |

| GASTU KONPUTAGARRIEN AURREKONTUA | PUNTUAK |
|---|---------|
| 6.000,01 euro eta 7.000,00 euro bitartean | 7 |
| 7.000,01 euro eta 8.000,00 euro bitartean | 8 |
| 8.000,01 euro eta 9.000,00 euro bitartean | 9 |
| 9.000,01 euro baino gehiago | 10 |

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak Balioespen Batzordeak aztertuko ditu. Balioespen Batzorde horren burua Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

“Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.”

Balioespen Batzordeak txosten bat egingo du, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun hurrenkera zehaztuko dira, hala badagokio.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan ebazpen adierazirik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

Bederatzigarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Honako hauek aurkeztuko dituzte erakunde onuradunek 2019ko abuztuaren 30a baino lehen:

a) Memoria-likidazioaren inprimaki normalizatua (II. eranskina), behar bezala beteta, eta gastuen jatorrizko egiaztagiria edo haien fotokopia konpultsatua (gastuen guztizko zenbatekoaren jatorrizko ordainagiri edo fakturak). Aitzitik, 500,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

“Beharrezkoa da fakturak jatorrizko formatuan aurkeztea; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez datozenak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoki bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.”

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiria, PFEZeko (persona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

– “Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.” Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria, non agertuko diren faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketaren data.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoki jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritzaren gune, autobide, bidaia txartel eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigilua jarrita, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaloa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Jarduera egin eta gero, aurkeztutako datuetan edozein aldaketa eginez gero, horrek eskabidean adierazi ziren eta dirulaguntza kalkulatzeko oinarri moduan erabili ziren datuetan aldaketarik sortzen bada, hura berriro kalkulatu beharko da, Deialdiaren zazpigarren oinarrian jasotzen diren irizpideen arabera, eta ezin izango da, inola ere, hasieran bideratutakoa baino handiagoa izan.

Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira izango dira Arabako Foru Aldundiko beste

sailek edo haiei atxikitako erakundeek ematen dituzten dirulaguntzekin, baldin eta bi erakundeek, elkar hartuta edo aldez aurretik jakinarazita, horretarako berariazko baimena ematen ez badute.

Hamaikagarrena. Publizitatea


1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.
2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean egongo da ikusgai: www.araba.eus, Herritarrentzako zerbitzuak / Laguntzak eta dirulaguntzak izeneko atalean.

Hamabigarrena. Erantzukizunak

Deialdiaren xede diren jarduerak erantzukizunak eragiten baditu, onuradunak izango dira erantzule; gainera, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen baimenak eskatu beharko ditu.

Hamahirugarrena. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

| | |
|--|--|
|  <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p> | <p>Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Irabazteko xederik gabeko erakundeen bitarteko jolas kirola</p> <p>2019</p> <p>Deporte recreativo a través de instituciones sin ánimo de lucro</p> <p>Solicitud (anexo I)</p> |
| | <p>Euskera, Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Euskera, Cultura y Deporte</p> |

ASUN

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

| | | | |
|---|------------------------|---------------------------------------|--------------------|
| Identifikazio agiria ■ Documento identificativo | | Identifikazio zk. ■ Nº identificativo | |
| <input checked="" type="checkbox"/> IKZ ■ CIF | | | |
| Sozietatearen izena ■ Razón social | | | |
| | | | |
| Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) | Zk. ■ Núm. | Letra | Eskra. ■ Escal. |
| | | | |
| | | | Solairua ■ Piso |
| | | | Aldea ■ Mano |
| | | | |
| Herrialdea ■ País | Probintzia ■ Provincia | Udalerría ■ Municipio | Herria ■ Localidad |
| | | | P. K. ■ C. P. |
| | | | |
| Posta elektronikoa ■ Correo electrónico | | | |
| | | | |
| Telefonoa ■ Teléfono | Mugikorra ■ Móvil | Faxa ■ Fax | |
| | | | |

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la entidad solicitante)

| | | | |
|--------------------------------------|------------------------|-----------------------|--------------------|
| Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) | Zk. ■ Núm. | Letra | Eskra. ■ Escal. |
| | | | |
| | | | Solairua ■ Piso |
| | | | Aldea ■ Mano |
| | | | |
| Herrialdea ■ País | Probintzia ■ Provincia | Udalerría ■ Municipio | Herria ■ Localidad |
| | | | P. K. ■ C. P. |
| | | | |

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

| | | | | | |
|---|-------------------------------------|---|--|--|---|
| Identifikazio agiria ■ Documento identificativo | | Identifikazio zk. ■ Nº identificativo | | Sexua ■ Sexo | |
| <input type="checkbox"/> NAN DNI | <input type="checkbox"/> AIZ NIE | <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro | | <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer | <input type="checkbox"/> Gizona Hombre |
| Izena ■ Nombre | | Lehen abizena ■ Primer apellido | | Bigarren abizena ■ Segundo apellido | |
| | | | | | |
| Posta elektronikoa ■ Correo electrónico | | | | | |
| | | | | | |
| Telefonoa ■ Teléfono | Mugikorra ■ Móvil | Faxa ■ Fax | | | |
| | | | | | |

Orria ■ Hoja 1/6



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Eskabidea (I. eranskina)

Irabazteko xederik gabeko erakundeen bitarteko jolas kirola

2019

Deporte recreativo a través de instituciones sin ánimo de lucro

Solicitud (anexo I)

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■ DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

| | |
|--|--|
| Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos | |
| NAN ■ DNI | |
| Entitatea ■ Entidad | |
| IFK ■ CIF | |
| Kargua ■ Cargo | |

Berariaz baimena ematen dut neure datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta laguntza ekonomiko honen tramitazio eta kontrola kudeatzeko helburuz bada. ■ Exproso mi consentimiento para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre esta ayuda económica.

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma _____

(zigilua ■ Sello)

**Eskaera sinatzen duenaren
NANaren fotokopia.**

(AURREKO ALDEAN)

Fotocopia del DNI de la persona
firmante de la solicitud.

(ANVERSO)


**Eskaera sinatzen duenaren
NANaren fotokopia.**

(ATZEKO ALDEAN)

Fotocopia del DNI de la persona
firmante de la solicitud.

(REVERSO)

Orria ■ Hoja 2/6

| | |
|--|--|
|  <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p> | <p>Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Irabazteko xederik gabeko erakundeen bitarteko jolas kirola</p> <p>2019</p> <p>Deporte recreativo a través de instituciones sin ánimo de lucro</p> <p>Solicitud (anexo I)</p> |
| | <p>Euskera, Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Euskera, Cultura y Deporte</p> |


BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete solik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

| | |
|-----------------------|--------------|
| BANKUA ■ BANCO | |
| IBAN | SWIFT |
| | |

| (FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA) | (ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE) |
|---|--|
